


# BAINO LEHEN ... HLM PUSSY



**SINOPSIS:** Nora El Hourch-ek *HLM Pussy* (2023) film luzea zuzentzen du, eta Frantziako gizartearen bazterretako nerabeen errealitateen kontakizun garaikidea osatzen du. Bertan, honako **gai hauek** jorratzen dira: **onespena, sare sozialen botere mediatikoa, sare sozialetan ikusi daitekeen indarkeria, emakume nerabe eta gazteen arteko sororitatea, edo indarkeria sinbolikoa, klase presioen, arrazakeriaren edo generoan oinarritutako indarkeriaren bidez.**

Istoriok hiru protagonista nagusien (Amina: Léah Aubert, Djeneba: Médina Diarra eta Zineb: Salma Takaline) adiskidetasuna du ardatz. Jatorri eta identitate sozial desberdinetakoak izan arren, harreman sakona ezartzen dute beren haurtzarotik. Film luzeak aurrera egin ahala, harreman hori aldatu egiten da Zineb Zacen jazarpenaren biktima denean. Zac anaiaren lagunik onena da. Zinebek pairatzen duen indarkeriaren aurrean, Aminak sare sozialen bidez erresistentzia ekintza bat hastea erabakitzen du. Hala ere, Amina ez da bere egintzaren ondorioak neurtzeko gai, eta haurtzaroko bi lagunekin duen adiskidetasunaren mugak proban jartzea suposatuko du.



Hasieratik, *HLM Pussy* film luzea kontraste gogorrez josita dago, hala nola arlo publikoa eta pribatua, nerabeen kalteberatasuna eta sare sozialen erakusketak mediatikoa, generoan, klasean eta kulturen oinarritutako indarkeria eta emakumeen arteko sororitatea haren aurrean, besteak beste. Horregatik guztiagatik, Nora El Hourch-ek, eguneroko estilo bisual baten bidez, hiru nerabe hauen bizitzei buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu, birgirada birbiktimizatzaileetan erori gabe.

Azkenik, *HLM Pussy* ez du beste nerabe drama zinematografiko bat osatzen; aitzitik, ausardiaz betetako obra gisa kontsumitzen da, eta generoan oinarritutako indarkeria sinbolikoaren aurrean erantzun kolektiboa interpelatu du, gainesposizio digital globaleko garai batean. Hori guztia dela eta, film honen proiektioak errealitate horien inguruko hausnarketa sustatu nahi du, baita errealitate horien ondorioz sortzen diren dilemak ere.

- Trailerra ikusi nahi duzu? <https://www.youtube.com/watch?v=Y5Spd-PrE6k>

Jarraian, ikasleekin batera, dagokion materialean, lantzeko aukeratutako HIRU GAIK azalduko dira:

- 1. EMAKUME NERABEEN GORPUTZEN HIPERSEXUALIZAZIOA, HORRELA GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEKO:** Ikasgelan emakumeen hipersexualizazioaren aurrean begirada kritikoa garatzea, gorputz-aniztasunarekiko errespetua eta genero-berdintasuna sustatuz.
  - Jarraian, hipersexualizazioarekin lotutako film labur hau proposatzen dizuegu: "*Hipersexualización de niñas y adolescentes*". <https://www.rtve.es/play/videos/objetivo-igualdad/objetivo-igualdad-hipersexualizacion-ninas-adolescentes/6903866/>
- 2. EMAKUME NERABEEN GORPUTZEI EGITEN ZAIEN KONTROLA, INDARKERIA-MOTA DESBERDINEN BIDEZ:** Emakumeen gorputzen gaineko kontrolaren azterketa kritikoa sustatzea, gure inguruneetan gertatzen diren indarkeria moten bidez.
  - YouTuben argitaratutako hurrengo film laburra ikustera gonbidatzen zaituztegu: "*Violencia de género en adolescentes*". <https://www.youtube.com/watch?v=xCWttdpmbKU>
- 3. EMAKUME NERABEEN AHALDUNTZEA, BIZI DIREN INGURUNEETAN GERTATZEN DIREN INDARKERIEI AURREAN ERRESISTENTZIARAKO TRESNA GISA:** emakume nerabeen ahalduntzearen potentzialtasuna identifikatzea, bizi diren inguruneetan gertatzen diren indarkeriei erantzuteko.
  - Azkenik, bideo hau ikustera animatzen zaituztegu: "*Espejo De Realidad. Violencia de Género. Adolescentes*". <https://www.youtube.com/watch?v=9q2QfDAUTXk>